

Ikasle egoitzak eta unibertsitate egoitzak:
86 aztertu ditugu, Espainiako 18 hiritan

Zein hiri eta baldintzatan hartu nahi den ostatu, alde handia, egoitzatik egoitzara: zazpi halako ere bai hileroko prezioan

HILEAN 230 EURO BALIO DUTE EGOITZA MERKEENEK, ETA 1.400 EURO GARESTIENEK. MADRIL ETA BARTZELONA DIRA HIRIRIK GARESTIENAK. TOKIAK TXUKUN DAUDE ETA ONGI HORNITUAK, BAINA GABEZIAK DITUZTE PERTSONA EZINDUEN IRISPIDEETAN

Ikasle egoitzak eta unibertsitate egoitzak ez daude guztien eskura. Eskola dossier ona behar da lehenik, eta ondoren, diru dezente: hilean 600 euro, batez beste. Eta ezintasunen bat duten per-tsonak hori ere ez lukete aski izango, irispideak oso eskasak baitira egoitzarik gehien-gehienetan. Halaxe egiaztatu du CONSUMER EROSKI-ren azterketak; 18 hiriburutako ikasle egoitzak eta unibertsitate egoitzak aztertu ditugu, 86 guztira (Espainian daudenen % 20).

Askotariko egoitzak daude, eta prezioak ere askotarikoak dira; zein hiritan hartu nahi den ostatu, eta zein baldintzatan, merkeagoa edo garestiagoa izango da. Aztertu ditugun egoitzetatik garestiena Bartzelonan aurkitu dugu, eta hauxe eskaintzen dute: lagun batentzako logela, bainugela eta guzti, eta mantenu osoa. Eskatu, berriz, 1.418 euro hilean. Egoitzarik merkeena Sevillan aurkitu dugu; lo egiteko lekua eskaintzen dute, ez besterik, eta eskatu, 230 euro hilean.

86 ikasle egoitza eta unibertsitate egoitza bisitatu ditugu, 18 hiritan: Alacant, Bartzelona, Bilbo, Donostia, Granada, Gasteiz, Iruñea, Kordoba, Madril, Malaga, Murtzia, Oviedo, Salamanca,

Santiago, Sevilla, Valencia, Valladolid eta Zaragoza. Publikoak, pribatuak eta kontzertatuak aztertu ditugu; horietatik erdiak baino gehiago mistoak izan dira, baina oraindik ere badago joera sexuak bereizteko: egoitzen ia % 38 neskentzat soilik izan dira, eta % 11, mutilentzat.

Alde batetik, CONSUMER EROSKI-k informazioa galdegin die egoitza horietako zuzendari eta arduradunei. Bestetik, aldizkari honetako teknikariak egoitza horietara joan dira uztailean, bezero-arenak egiten, familiako norbaitek ostatu hartu nahi lukeela eta. Modu horretara, euren begiekin ikusi ahal izan dute zein egoeratan dauden egoitzak eta nola zaintzen dituzten, nola garbitzen, zer zerbitzu eskaintzen duten, zer-nolako irispideak dauzkaten, segurtasuna nolako den, zein baldintza jartzen dituzten norbait onartzeko edo zer arau ezartzen dizkieten han bizi direnei.

Batez beste, egoera nahiko apala dela erakutsi du gure azterketak, 'onargarria' baino ez. Murtziakoa eta Gasteizkoa 'oso onak' dira, eta Alacant, Bilbo, Donostia, Kordoba, eta Malagakoa, berriz, 'onak'. Beste hainbat, soilik 'onargarritzat' jo dituzte gure teknikariek (Bartzelona, Madril, Granada, Oviedo, Salamanca, Santiago, Valentzia, Valladolid eta Zaragoza), eta azken biak, Iruñekoa eta Sevillakoa, ez dira iritsi gutxieneko horretara ere: 'hala-holakoak' iruditu zaizkie.

Atalez atal aztertuta, emaitza onak eman dituzte informazioaren, garbitasunaren eta zerbitzuen atalean (batez beste, egoera 'ona' da). Okerxeago dabilta segurtasun eta larrialdi neurrietan ('onargarri' baino ez), eta are okerrago irispideetan ('hala-holako' irispideak dituzte, batez beste, gutxienera ere iristen ez direnak): egoitzen erdiek baino gutxiagok daukate ezinduentzat egokitutako gelak.

Zenbat kostatzen da ikasle egoitza bat edo unibertsitate egoitza bat?

Unibertsitate egoitza batean edo ikasle egoitza batean ostatu hartzea, batez beste, 654 eta 574 euro artean kostatzen da hilean. Madril ateratzen da garestien, betiere batez bestekoak eginda: lagun batentzako gela, bainugelarekin, eta mantenu osoa ematen dutela, 897 euro kostatzen da hilean (1.135 eurotik 582 eurorainoko aukerak eskaintzen ditu Madrilek); birentzako gela bat hartuz gero, baldintza berberetan, 90 euro gutxiago kostako litza-teke, gutxi gorabehera. Bartzelonako egoitzak datoz jarraian; horietan, batez beste, Madrilen baino 75 euro merkeagoa ateratzen da lagun baten-tzako logela, bainugela eta mantenu osoarekin: 822 euro. Birentzako logela baino 83 euro garestiagoa.

Kontrako muturrean, Sevillan bisitatu ditugun egoitzak daude: lagun batentzako gela, bainugelarekin, eta mantenu osoa bertan egiteko aukera eskaintzen dutela, 519 euro ateratzen da hilean, batez beste. Madrilgoarekin alderatuta, adibidez, 400 euro aurreztu litezke hilean. Birentzako gela are merkeago irteten da: 462 euro. Egoitzarik merkeenetakoak dituzte, halaber, Santiagon ere. Batentzako logela, besteen baldintza berberetan, 539 euro kostatzen da hilean, eta birentzako bada, 491 euro.



Lagun batentzako edo birentzako logela hartzea izaten da ohikoa, bainugela duena, eta otorduei dagokienez, mantenu osoa egoitzan bertan eginez. Baldintza horietan hartzen dute ostatu ikaslerik gehienek, baina badira bestelako aukerak ere. Nahiko hedatua dago, adibidez, batentzako edo birentzako logela hartzea, bainugela osoki hornituarekin, baina mantenu erdia eginez. Baldintza horiek eskaintzen dituzten egoitzarik garestienak Bartzelonan daude, eta 735 eta 709 euro artean dabilta, batez beste.

Logela soilik hartzeko aukera ere bada, inolako mantenurik gabe. Hala eginda, dezente merkeago irteten da: 357 euro hilean, batez beste.

Hileroko kuota ordaintzeaz gain, bermea ere jarri behar izaten da egoitzarik gehienetan. Malagan 30 euroko bermea eskatzen dute, Iruñean 60koa, eta Bartzelonan eta Granadan, 2.000 eurokoa eta 1.500ekoa, hurrenez hurren. Ikasleak egoitza utziko balu arrazoirik eman gabe, edo ikastetxeak kanpoan utziko balu, edo kalteak eragingo balitu egoitzan edo altzarietan, berme moduan jarritako dirutik hartuko lukete egoitzako arduradunek.

Oinarrizko zerbitzuak eskaintzen dituzten egoitzetatik, 'luxuzkoetara'

Egoitzek zer zerbitzu eskaintzen duten aztertzea oso lagungarria izaten da horien kalitatea neurtzeko. Aztertu ditugun guztietatik, % 45ek soilik daukate bainugela osoki hornitua logeletan (konketa, komuna eta dutxa). Egoitzen % 35ek logela batzuetan daukate, eta % 20k, ez dute halakorik logeletan. Nabarmen samarra



• • • Hiri bakoitzean bisitatu ditugun ikasle egoitzen eta unibersitate egoitzen prezioak (garestienak eta merkeenak), banan-banan

	Batentzako logela, bainugelarekin eta mantenu osoa duela			Birentzako logela, bainugelarekin eta mantenu osoa duela			Batentzako logela, bainugela eta mantenu osoa duela			Birentzako logela, bainugela osoki hornituarekin eta mantenu osoa duela			Lotarako lekua soilik		
	Gares-tiena	Merkeena	Batez Bestekoa	Gares-tiena	Merkeena	Batez Bestekoa	Gares-tiena	Merkeena	Batez Bestekoa	Gares-tiena	Merkeena	Batez Bestekoa	Gares-tiena	Merkeena	Batez Bestekoa
Alacant	860	385	634	600	385	509	555	364	460	589	273	431	****	****	****
Bartzelona	1.418	565	822	775	492	739	800	650	735	800	580	709	450	420	435
Bilbo	878	530	704	654	654	654	****	****	****	****	****	****	458	382	420
Kordoba	600	600	600	600	600	600	510	510	510	460	460	460			307
Granada	800	650	714	700	640	670	680	667	674	640	640	640	****	****	****
Madril	1.135	582	897	950	417	811	****	****	****	****	****	****	561	435	498
Malaga	****	****	****	****	****	****	****	****	****	****	****	****	395	240	318
Murtzia	690	551	598	546	546	546	510	490	500	460	460	460	****	****	****
Oviedo	800	605	680	545	540	542	545	545	545	500	480	490	****	****	****
Iruñea	770	580	659	****	****	****	****	****	****	****	****	****	****	****	****
Salamanca	630	580	607	560	560	560	****	****	****	****	****	****	****	****	****
Donostia	970	550	760	****	****	****	****	****	****	****	****	****	****	****	****
Santiago	560	513	539	492	490	491	****	****	****	****	****	****	244	244	244
Sevilla	620	439	519	524	400	462	****	****	****	****	****	****	328	230	280
Valentzia	653	570	601	****	****	****	****	****	****	****	****	****	****	****	****
Valladolid	650	508	571	500	500	500	490	490	490	450	450	450	****	****	****
Gasteiz	****	****	****	****	****	***	****	****	****	****	****	****	381	334	358
Zaragoza	684	398	559	398	368	383	360	360	360	****	****	****	****	****	****
Batez bestekoa	795	538	654	603	507	574	556	510	534	557	478	520	402	326	357

ASKE EDO EROSO?

Unibertsitate ikasketak hasi behar dituenarentzat, asko aldatzen dira gauzak, eta zer esanik ez gurasoen habia lehenengoz utzi beharra suertatzen bazaio. Non biziko den erabaki behar du, eta ostatu bila hasi. Aintzat hartu behar du zer nahi duen, eta zer ahal duen; askatasuna nahi duen, edo erosotasuna, batetik, eta zer diru gasta dezakeen, bestetik. Aukerak ez dira gutxi: unibertsitate egoitzak, ikasle egoitzak, pisuak, familia edo unibertsitate klubak.

UNIBERTSITATE EGOITZAK: Hiria ezezaguna izanik, egoitza hauek aukera ona ematen dute jendearekin harremanak egiteko. Ikaslearen beharrian guztiei erantzuten diete egoitza hauek, baina, noski, hileroko kuota ere sumatzen da hori. Gainera, giroa etxekoaren oso antzekoa da batzuetan, eta ordutegi eta arau zorrotz samarrak bete behar izaten ditu ikasleak.

IKASLE EGOITZAK: Unibertsitate egoitzetan baino askeago sentitu ohi da ikaslea beste egoitza hauetan, eta jendea ezagutu eta harremanak egiteko leku onak izaten dira. Hori dela eta, eskabide handia izaten dute. Oro har, arauak ez dira izaten hain zorrotzak.

PISU PARTEKATUAK: Egoitza bat aurkitzea baino zailagoa da pisu bat lortzea. Hala ere, hauxe izaten da ikasle askoren hautua, batik bat loturak, ordutegiak eta arau zorrotzak maite ez dituztenena. Erabateko askatasuna ematen du pisu batean bizitzeak, baina zenbaitetan, ikasleek ez dute asmatzen nola antolatu ikasketak eta etxeko lanak aurrera ateratzeko. Askotan, gainera, ikasleak bezain aske ibiltzen da dirua ere, eta hilabete bukaeran izaten dira kontuak.

gertatu da Bartzelonan ikusia: aztertu ditugun 10 egoitzetatik 7tan, ikasle guztiek bainugela berberak erabiltzen dituzte.

Egoitzen erdiek baino gehiagok eskaintzen dituzte ohe-jantziak (zerbitzu hori ematen ez duten egoitzen erdietan, horiek alokatzeko aukera dago); ezinbesteko diren elementurik gehienak badiutuzte egoitzek, baina bi aurkitu ditugu berogailurik edo oinarrizko beste elementurik gabe (armairuak, zaborrontziak eta ikasgaiak).

Egoitza hauetan ohikoa da honako beste zerbitzu hauek ere edukitzea: harreragunea, jantokia (otordurik ematen ez duten egoitzen ere badaude), garbategia (hileroko kuota barnean sartzen da maizenik), bisitak hartzeko aretoak eta ikasgelak.

Ordenagailu gela duten egoitza guztiek daukate Internet (aztertu ditugun 86etatik 64k dute), eta lautatik hirutan, logeletan bertan konektatzeko aukera dago. Multimedia gela horietan, batez beste, zortzi ordenagailu daude egoitzako. Unibertsitate giroan barneratzen laguntzeko, berriz, egoitzen % 70ek baino gehiagok antolatzen dituzte jarduera soziokulturalak ikasturtean barrena, batik bat Madrilan, Malagan, Murtzian, Santiagon eta Valladoliden.

Edozein larrialdi gertatzen dela ere, oso ongi etorri ohi da botika ontzi bat edukitzea, eta egoitzen % 75ek badute. Horietako batzuek, gainera, erizaindegia ere badute (Madrilen, Malagan eta Donostian). Iruñeko eta Oviedoko egoitza batzuetan, Madrilan eta Malagan gertatzen den bezala, medikua ere badute, eta egoitzan bertan egoten da beti. Kirol azpiegiturak, berriz, erdiek baino ez dituzte.

Egoitzarik gehienek lotura onak eskaintzen dituzte unibertsitate campusetara joateko, hirigune historikoetara hurbiltzeko edo garraibide publikoak dauden geltoki nagusietara iristeko (autobusa, tren, metroa). Aztertu ditugun egoitzen % 95ek ez dute eskaintzen berezko garraio zerbitzurik (Iruñean, Kordoban eta Oviedon aurkitu ditugu salbuespen gutxi batzuk), baina gehien jota ere, oinez 10 minutu egongo dira egoitzako atetik hiri garraioak hartzen diren geltokirik hurbilenera.

Egoitzen % 10ek badute laguntza pedagogikoa emateko lan taldea, eta % 12k laguntza psikologikoa emateko zerbitzua daukate, ikasleren batek behar izanez gero.

Oso txukun daude egoitzak

Egoitzen ia % 40tan, ikasleek garbitzen dituzte euren logelak. Zenbait egoitzatan, hileroko kuota sartzen da garbitasun zerbitzua, baina guztietan ez dute garbitzen maiztasun berarekin: % 18tan, egunero garbitzen dute; % 10etan, bi egunez behin; % 14tan, hiruz behin; eta % 18tan, astean behin.

Gainerako gela, areto eta bilguneak garbi-garbi aurkitu ditugu, oro har, eta bainugelak ere txukun egon izan dira, salbuespenak salbuespen (Salamanca batean usain txarra sumatu dugu, Iruñekoren batean komuneko paperik ez da egon izan, eta eskuak garbitzeko xaboi gutxi aurkitu dugu Iruñeko beste batean, Murtziako batean eta Valentziako batean). Kirolguneak ere oso ongi zainduta egon dira, Valladolideko eta Madrilgo batzuk izan ezik.

Zaborrontzietan, ordea, ez dira ibili hain txukun. Bisitatu ditugun egoitzetatik, % 62k soilik eduki dituzte papera eta kartoia biltzeko edukiontzia; plastikozko ontziak biltzeko edukiontzia, berriz, erdiek baino ez dituzte izan; % 53k pilak jasotzekoak; eta, zabor organikoen edukiontzia, % 50ek. Donostiak, Gasteiz eta Oviadok ardurua handia erakutsi dute arlo horretan, eta komeni litzateke beste batzuek ere berdin egiten ikasiko balute (Granada, Valentzia eta Sevilla).

Murtzian, Bilbon eta Gasteizen soilik dituzte irispide egokiak

Egoitza hauek gabezia nabarmen bat dute, eta halaxe jaso du gure txostenak: ez daude egokituta ezintasunen bat duten pertsonentzat. Egoitzen % 60k ez daukate gela bakar bat ere ikasle horientzat egoki prestatuta. Egoerarik onena Bilbon, Gasteizen, Murtzian eta Alacanten bisitatu dituzten egoitzetan topatu dute gure teknikariek. Beste muturrean, berriz, Iruñekoak, Oviadokoak, Bartzelonakoak, Salamancakoak eta Valladolidekoak daude (badute zer ikasia besteetatik). Egoitza guztietatik, Bilbokoek eta Gasteizkoek soilik daukate bainugela egoki prestatuak: konketaren azpialdea irekia dute, gurgil aulkiei lekua egiteko; dutxan ez daukate errezelik; komun egokitua daukate, eskutoki eta guzti...

Logetatik kanpoko egoera ez da askoz hobea: egoitzen % 40k soilik daukate aldatsak sarbideetan, eskaileretatik igo beharrik ez izateko; ate estu samarrak daukate ia egoitzen erdiek, eta ezin da pasatu gurgil aulkiekin; hiru egoitzetatik batek ez du igogailurik edo, edukita ere, ez da behar bezain zabala; eta aparkaleku gehien-gehienetan, ez dute gordetzen tokirik ezinduek ibilgailuak utz ditzaten.

Nabarmetzeko modukoa da, halaber, beste alderdi hau ere: oso kartel edo afixa gutxi ikusi dituzte gure teknikariek braille hizkuntzan idatzitako (Murtzian, Sevillan eta Gasteizen daude bakan horiek).

Segurtasun neurriak: egokiak dira, baina hobetu daitezke

Ikasle egoitzen eta unibertsitate egoitzen % 86k badute alarma sistemaren bat –logetan, % 60koa da portzentaje hori–, baina badira halakorik ez dutenak ere (Bartzelonan, Kordoban, Granadan, Madrilan, Malagan, Oviadon, Salamancan, Santiagon eta Sevillan gertatzen da hori, dozena bat egoitzatan). Egoitzarik gehienek badituzte su itzalgailuak eta larrialdiko argiak eta irteerak, baina irteera horien % 60tan, ordea, seinaleak ez daude behar bezala jarrita. Eta beste gabezia bat ere badute egoitzek: % 22k soilik egin dute azken urtean larrialdi itxura bat, egoitza nola hustu behar den oroitartzeko.

• • • CONSUMER EROSKI-k aztertu dituen 86 ikasle egoitzak eta unibertsitate egoitzak. Laburpena

Hiriak	Informazioa ¹	Irispideak ²	Garbitasuna ³	Segurtasuna ⁴	Zerbitzuak ⁵	Batez bestekoa
Alacant	Oso ona	Onargarriak	Ona	Oso ona	Onak	Ona
Bartzelona	Ona	Hala-holakoak	Ona	Onargarria	Onargarriak	Onargarria
Bilbo	Ona	Onak	Oso ona	Ona	Onargarriak	Ona
Kordoba	Ona	Hala-holakoak	Oso ona	Onargarria	Oso onak	Ona
Granada	Oso ona	Txarrak	Onargarria	Onargarria	Hala-holakoak	Onargarria
Madril	Ona	Txarrak	Oso ona	Ona	Oso onak	Onargarria
Malaga	Onargarria	Onargarriak	Ona	Ona	Onak	Ona
Murtzia	Ona	Oso onak	Ona	Oso ona	Onak	Oso ona
Oviado	Ona	Txarrak	Ona	Txarra	Onargarriak	Onargarria
Iruñea	Onargarria	Oso txarrak	Onargarria	Onargarria	Hala-holakoak	Hala-holakoak
Donostia	Ona	Onargarriak	Oso ona	Ona	Onargarriak	Ona
Salamanca	Ona	Txarrak	Onargarria	Onargarria	Onak	Onargarria
Santiago	Oso ona	Txarrak	Onargarria	Onargarria	Onargarriak	Onargarria
Sevilla	Onargarria	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Onargarria	Onargarriak	Hala-holakoak
Valentzia	Ona	Hala-holakoak	Ona	Onargarria	Onargarriak	Onargarria
Valladolid	Ona	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Onargarria	Onargarriak	Onargarria
Gasteiz	Bikaina	Oso onak	Oso ona	Oso ona	Onak	Oso ona
Zaragoza	Ona	Hala-holakoak	Onargarria	Onargarria	Onak	Onargarria
Batez bestekoa	Ona	Hala-holakoak	Ona	Onargarria	Onargarria	Onargarria

(1) **Informazioa:** Atal honetan aztertu dugu egoitzen arduradunek helarazi diguten informazioa eta gure teknikariek eman dietena bisitan joan direnean. Horiez gain aintzat hartu ditugu arauak dagozkien alderdi guztiak, onarpen irizpideei dagozkienak eta matrikula egiteko jartzen dituzten betebeharrak dagozkienak. (2) **Irispideak:** Ezinduen beharrietara ongi egokituta ote dauden aztertu dugu. Egoitzako eremu guztietako irispideak ikuskatu ditugu, ea behar bezala moldatu dituzten ikusteko: sarbideetan, egoitza kanpoko eremuetan, aparkalekuetan, logetan, bainugeletan, guztiek erabiltzeko diren guzietan, igogailuetan... (3) **Garbitasuna:** Mantentze eta zaintze lanen atalean, arreta berezia jarri diogu garbitasunari, eta zorrotz aztertu dugu nola garbituta dauden logelak, bainugelek, guztiek erabiltzeko guzietak (kirolguneak, ikasgelak, jantokia, kafetegia, lorategiak); eraikina bera ere nola zainduta dagoen aztertu dugu, altzariek zer itxura duten, zoru nola dagoen... (4) **Segurtasuna:** Larrialdi egoerei nola erantzuneko lioketen aztertu dugu atal honetan; arrisku egoerarako protokolorik ba ote duten, larrialdiko argi eta irteerarik baden, suteen aurkako mekanismorik baduten, zaindaririk edo kamerarik jarri duten, larrialdi itxuririk egin duten azken urtean, egoitza nola hustu behar den oroitartzeko... (5) **Zerbitzuak:** Azkenik, egoitza bakoitzak zer zerbitzu eskaintzen dituen aztertu dugu: zer logela mota dituen, zer mantenu aukera, kirolguneak baduen, eremu berderik, jarduerarik antolatzen ote duen egoitzak berak, osasun zerbitzurik baduen, ikasleei laguntza pedagogikoa eta psikologikoa emateko lan talderik, garbitagirik, garraio zerbitzurik...

Arauek eta onarpen bideak: bakoitzak bereak ditu

Egoitza guztiek izaten dituzte arauak, eta horien bidez zehazten da egoitzako zerbitzu eta aretoak nola erabili behar diren, eta bizikidetzak betebeharrak zein diren, bai ikasleen artekoak, eta bai ikasleen eta langileen artekoak ere. Erretzea, adibidez, debekatua dago Murtzian aztertu ditugun hiru egoitzetan, eta Santiagon eta Valentzian bisitatu ditugun gehienetan ere bai.

Sarbideetako kontrola, Iruñean da zorrotzena, eta han aztertu ditugun lau egoitzetan, ostatu hartuta dauden ikasleak soilik sar daitezke; egoitzatik kanpokoek galarazia dute. Lau egoitza horietatik bitan, gainera, ikasleek nahitaez parte hartu behar dute egoitzan bertan antolatzen dizkieten jardueretan (berdin-tsu gertatzen da Malagan aztertu ditugun lau egoitzetatik hirutan ere). Salamancan bisitatu ditugun egoitzen erdietan, zaindariak idatzita uzten dute ikasleak noiz irteten eta sartzen diren.

Diziplina arazo bat sortzen denean, ikasleekin hitz eginez konpondu nahi izaten dute egoitza gehienetan, gurasoak jakinaren gainean jarri gabe. Bestela jokatzeko duenik ere bada, ordea: Alacanten, Iruñean eta Bartzelonan dauden egoitza askok gurasoei jakinarazi ohi diete euren seme-alabak nola dabilzan egoitzan, edo nola doakien unibertsitatean.

Ikasleak egoitzan onartzeko bideei dagokienez, denetarik aurkitu dute gure teknikariek. Batzuetan, irizpide oso zehatzak jartzen dituzte ikasleak onartzeko: adibidez, unibertsitate jakin batean egitea matrikula, edo eskola dossier on-ona edukitzea. Horixe gertatzen da Kordobako, Madrilgo, Salamancako eta Zaragozako egoitzarik gehienetan, eta Oviadokoetan ere bai (egoitza batzuk BAME edo BABE ikasten ari direnentzat dira). Ikasleak batxilergoan eta selektibitatean atera dituen notei garrantzi gehien ematen dieten egoitzak Zaragozan eta Madrilan aurkitu ditugu.

Iruñeko egoitza guztietan eta Bartzelonako, Salamancako eta Valladolideko gehienetan, aintzat hartzen dute ikasleekin izaten duten elkarrizketa ere, eta Malagan, gainera, garrantzi berezia ematen diote familia bakoitzak irabazten duenari. Guztiz bestela jokatzeko dute Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Alacanten: ez daukate era horretako baldintzarik. ◀

IKASLE EGOITZA EDO UNIBERTSITATE EGOITZA HAU ZORAGARRIA LITZATEKE

Erabaki batzuk ez dira nolana hartzekoak, eta horixe gertatzen da ikasle egoitza bat edo unibertsitate egoitza bat hautatzerakoan ere. Egoitza bat, izan ere, ez da lotarako lekua soilik; ikasle askorentzat, etxe izatera ere iritsi daiteke, urrun joan behar izan baitute unibertsitate ikasketak egitera, eta beste heldulekurik gabe iristen baitira. Horregatik, ezaugarri hauek eduki behar lituzke ikasle egoitza edo unibertsitate egoitza batek:

→ **OSTATU HARTZEKO BALDINTZAK:** mantenu osoa edukitzea izaten da erosoena ikasleentzat, denbora eta diru gutxiago joaten baitaie horrela (ez dute kanpoan jan behar, eta eurek ere ez dute hasi behar sukaldetan). Sukalde eta guzti datozen gelak ere aukera onak izan daitezke, apartamentu modukoak. Osasun arazoak direla-eta dieta berezia egin behar duten ikasleei zerbitzu egokia emateko, egoitzek menuak moldatzea litzateke gauzarik onena.

→ **ZERBITZUAK:** ikasleei eroso egoteko aukera emango dieten guztiak eduki behar lituzke: garbategia, erizaindegia, kafetegia-taberna, kirolguneak, ikasgela handi eta argitsuak (ordenagailu eta guzti), wifi sarea, liburutegi ongi hornitua, aisialdirako guneak edo atse-denlekuak (egongelak, telebista ikusteko edo kanpoko bisitak hartzeko), fotokopia zerbitzua, posta eta fax zerbitzua, aparkalekua (autoentzat, motorrentzat, bizikletentzat), lorategiak, garraio zerbitzua (campusera joateko, erdigunera, hiri garraioak hartzeko gel-toki nagusietara edo, bestela, egoitzatik hurbil dauden geltokietara). Gainera, ezinbestekoa da logelak eta guztiek erabili beharreko guneak txukun egotea eta ongi argizatuta.

→ **SEGURTASUNA:** larrialdi bati egoki erantzuteko neurri guztiak eduki behar lituzke, eguneko 24 orduetan: zaindariak edo kamerak sarbideetan, larrialdiko argiak logela eta areto guztietan, larrialdiko irteerak, su itzalgailuak, su/ke detektatzaileak, suteetarako ur harguneak, alarma, hodi malguak...

→ **IRISPIDEAK:** egoitzetako arduradunek kontuan eduki behar dute ikasle ezinduek ere har dezaketela ostatu, eta horien beharrietan ere aintzat hartu behar dituzte. Egokiena litzateke ikasle horiek inolako arazorik gabe iritsi ahal izatea egoitzako sarbideetara, eta lasai eta eroso ibili ahal izatea egoitza barrenean. Horrez gain, logelek egokituta egon behar lukete, eta berdin bainugelek, guztientzat diren aretoek eta aparkalekuek, eurek ere erabili ahal izateko.

